

Foro Irekiaren akta

Herritarren parte-hartzearen I-lab-a

2019ko ekainaren 20an, [3. Konpromiso Lantaldeak](#) (Euskadiko herritarren parte-hartzearen I-laba) Foro Irekia egin zuen Euskadiko Artxibo Historikoan.

Jardunaldiaren helburua izan zen 3. Konpromiso Lantaldearen lan-prozesua irekitzea eta, horrela, [azken 10 hilabeteetan egin duen lan-prozesua](#) elikatzea.

Foroan, lan-prozesua eta orain arte lortutako helburuak aurkeztu ziren, eta, ondoren, dinamika bat egin zuten talde txikiagoetan antolatuta, parte-hartzaileen ekarpen zehatzak biltzeko.


Jarraian, labur azaltzen dira jardunaldiaren ondorioak.

Kontzeptualizazioa

[I-laben kontzeptualizazioan](#), proiektuari buruzko informazio ugari biltzen da. Ildo horretatik, haren edukiak aurkeztu ostean, iritzi orokorrak bildu nahi izan dira.

Alderdi erakargarrienak, besteak beste, hauek izan dira: egitura arina eta sakabanatua, lana hobetzeko laguntza, eta desberdinen arteko topagune bat sortzeko ideia.

Bestalde, **zalantzak piztu dira** materializazioari buruz, hau da, nola egin paperetik abiatu eta proiektua martxan jarri arteko jauzi hori; baita beharrezko baliabideei buruz eta, beraz, proiektuaren iraunkortasunari buruz ere; eta herritarren zereginari eta parte-hartzeari buruz, eta, zehazki, gutxiengoaren parte-hartzeari buruz.



Zerbitzuak

Zerbitzuen atala, zeina kontzeptualizazioaren barruan baitago, espezifikoki landu da, praktikoa eta zehatz-mehatz aztertzeko modukoa dela uste delako. Ekarpen aberatsak eta askotarikoak egin dira aldez aurretik zehaztutako zerbitzu-karta bati dagokionez.

Nabarmenezkoa da parte-hartzaileek agerian jarri zutela arreta jarri beharra dagoela **tokian tokiko sare eta esperientzietan**, baita prozesu instituzionaletan parte hartzen ari ez diren pertsona eta eragileengan ere. Era berean, esan zuten nolabait kezkatuta zeudela ea hau guztia herritarrei nola azal dakiekeen modu ulergarri batean eta konfiantza sortzeko moduan, eta, alde horretatik, planteatu zen beharrezkoa dela proiektua sinesgarri egingo duen eta jendea irekiko dion tresna digital praktiko eta demokratiko bat sortzea.

Proiektu esperimentalak jorratzeko moduari dagokionez, adierazi zen beharrezkoa dela alderdi hori lehendik dauden beste deialdi batzuekin egokitzea eta **martxan dauden proiektuekin lotzea**.

Eta, azkenik, azpimarratu zen **ebaluazio jarraitua** garrantzitsua dela etengabeko ikaskuntzaren prozesu gisa.



Gobernantza-eredua

Gobernantza-eredua erabakiak hartzeko prozesuaren oinarritzko alderdiak definitzen dituzten zenbait aukera kontuan hartuta landu da, hala nola bazkidetza, erabakitzeko espazioen garrantzia eta gardentasuna.

Horri dagokionez, parte-hartzaileak ados daude **kide izateko eskakizunen artean kontuan hartzekoak direla aldez aurreko esperientzia eta etorkizunera begirako konpromisoak**, hein berean, eta erabakiak hartzeko espazioak eragile mistoek osatu behar dituztela (erakundeetakoek, adituek eta sozialek).

Erabakiak hartzeko espazio horien forma definitzeko orduan, bestalde, batzuek nabarmendu dute espazio horizontalak eta irekiak izan beharko luketela, eta beste batzuek, berriz, egokiago ikusten dute deialdi irekiak zuzendaritza-batzorde klasikoago batekin konbinatzea.

Eranskina

Atal honetan, taldeko dinamikan jasotako informazioaren transkripzioa erantsi da.

Kontzeptualizazioa

Zer egin zaizu deigarria?

- Deslokalizazioa. Bilbon bizi beharrik ez izatea.
- Askotariko espazioak.
- Eraikitze bidean dela.
- Nazioarteko sarea.
- Laguntzaren zatia aparta da! Laguntza egituratua.
- Kontzeptu erakargarria.
- Esperientziak jasotzea.
- Eragileen arteko topagune bat izatea: eskaintza (kanpoko eragileak) eta eskaria (herritarrak, erakundeak, etab.).
- Elkar ezagutzeko topaguneak.
- Udalerrri txiki batentzat erdi betetako ametsa izatea: parte-hartzearen espektroa zabaltzeko aukera ematen du, antolatzea.
- Lan egiteko modua: talde txikietan, malguta, sormenean oinarritua.
- Erakundearen eta gizartearen arteko harremana egokitzea.
- Interesak agerian jartzea, soilik estatua aintzat hartzen duen ikuspegi baten ordeza.
- I-laberen metodologia koherentea eta beharrezkoa da.
- Berrikuntza: alde aurreko zerbait behar da berritu ahal izateko. Nola berritu parte-hartzea, parte-hartzerik ez badago?
- Kontzeptualizazioa, hau da, parte-hartzea definitzea. Prozesu luze eta nekeza da: elkarriketa, interes eta ikuspegi asko.
- Egitura sinpleak eta eginez egituratzen direnak positiboak dira.
- Talde mistoak: inplikazioa eta sinesgarritasuna indartzen dute.
- Erakundeetako eragileak: ezagutza teknikoak ematen dituzte.
- Informazioa webgune batean egotea.

Zerk piztu dizu jakin-mina?

- Nola egingo dugu? Nola lurreratuko gara? Nola antolatzen da? Epeak?
- Nazioartearekiko konexioak errealak izatea.
- Orain, erronkarik handiena proiektua gauzatzea da.
- Parte-hartzeari dagokionez, baliabideen kontua nola konpondu ikustea.
- Nola lortu pertsonen parte-hartzea.
- Prozesuak zaintzea: arreta handiagoa jartzea prozesuei, emaitzei baino.
- I-laberen iraunkortasuna.
- Prozesu irekien artean koordinazio egokirik ez egotea (adibidez, Agenda Nagusi).
- Parte-hartzearen zatia konplexuago bihurtzen den heinean, gero eta zailago egiten da.

- Zer egiteko dute adinekoek?
- Teorian, dena ezin da.
- Gobernantza eta iraunkortasuna garbiago ikustea.
- Gutxiengoak nola txertatzen diren.
- Lehenengo inpresioan, kontzeptualizazioa oso kontzeptuala da: handia, indartsua, baina zein da bidea?
- Aurkezpenean teoria asko zegoen eta adibide praktikoak falta ziren.
- Nola lurreratu? Zer-nolako esperientziak?
- Nola mantendu edo marraztu erronka sozialak? Etorkizuna Eraikiz-en adibidea?
- Nahiko konplexua da, kosta egiten da hariari jarraitzea.
- Anbizio handia dagoela dirudi. Zer baliabide daude? Nola mantentzen da? Beharrezkoa da jakitea. Adibidez: Osakidetza edo osasun-arloan, parte hartzeko premia handia dago. Nola definitu esparru honetan? Politikak eta hobekuntzak definitzeaz harago. Praktikan, zailtasun handiak daude.
- Guztien arteko kudeaketaz ari garela, benetan gai izango gara eragile guztien artean partekaturiko ibilbide bat sortzeko? Ikuspegia, erantzukizuna, etab.
- Herritarrok nola parte hartuko dugu? Non dago herriaren boterea? Zer da parte-hartze erreala, boterea soilik erakundeek baldin badute?
- Parte hartu bai, baina zertarako? Oso garrantzitsua da.
- Mesfidantzak daude: batzuetan, parte-hartzea interesgarria delako bultzatzen da, eta ez funtzionatzen duelako; ez da sustatzen parte-hartze errealik.
- Handituko den eta parte hartzeko hainbat aukera emango dituen plataforma baten beharra.
- Nola dei egin gutxiengoa diren eta sozialki bazterturik dauden kolektiboak? Lan egin beharra dago, mahai hauetan ez dauden baina gizartean badauden kolektiboak ere hemen egon daitezen (etorkizunean mahai hauetan egon daitezen).
- Administrazioek baliabideak jartzen dituzte eta prozesuan landutakoa aplikatzeko konpromisoa hartzen dute, baina zer zeregin daukate prozesuan?

Zerbitzuak

Zer falta da?

- Beste puntu bat gehitzea proposatzen da: alde zurreko komunikazio-zerbitzua. Sentsibilizazio-, dibulgazio- eta kontzientziazio-lanak, askotariko eragileekin lan egiteko garrantziari erantzuteko.
- Genero-ikuspegia sartzea.
- Gatazkaren ideia. Gatazkarik sorrarazten ez duen lab batek ibilbide laburra du.
- Konponbide zehatzak.
- Gauzak mahai gainean jartzeko foro bat.

Prospekzioarekin lotutako zerbitzuetan, hau falta da:

- Jabetza jabetza intelektualaren erreferentziak.
- Shape interaktibo, malgu eta digitala.
- Arrakasta- eta porrot-kasuak.

- Zerbitzuak etiketatu eta sailkatzea.
- Atal honetako hiru zerbitzuek ez dute premia bera. Garrantzitsuena “Erronkak eta joerak detektatzeko jarduerak” da.
- Aurretik zer egin den jakin behar da, diagnostiko bat. Ez soilik joerak. Aukera bat Irekiaren esperientzia aztertzea litzateke.
- Zerbitzu zehatzei dagokienez:

Euskadiko berrikuntzaren mapa, parte-hartzeari dagokionez:

- Komunikazio handiagoa: funtzionarioak, herritarrak, etab.
- Gaur egungo jokatzeko modua ikuskatzea. Oinarrizko lerroak.
- Eragile horiek zergatik dauden azaltzea.
- Laugarren puntua gehitzea ez daudenak mapeatzeko, hau da, parte-hartze prozesu bat martxan jartzeko orduan ordezkaturik ez dauden pertsonak: zergatik ez daude? Ez dute konfiantzarik prozesuetan? Ez dute astirik? Ez dira integratuta sentitzen? Nola heldu haiengana?

Erronkak eta joerak detektatzeko jarduerak:

- Informazio-iturriak ezartzea.
- Testuinguruan jartzea.

Parte-hartzearen arloko berrikuntzarekin lotutako nazioarteko sare edo dinamiketako parte-hartzea:

- Munduan zer gertatzen den ikustea, tokian-tokian zer gertatzen den hobeto ulertzeko.
- Tokian tokiko konexioei, harremanei eta transferentziari askoz etekin handiagoa ateratzea. Nazioartekoa ere ondo dago.
- Zati hau funtsezkoa da.

Esperimentazioarekin lotutako zerbitzuetan, hau falta da:

- Oinarriekiko, gizartearekiko, elkarteekiko komunikazioa. Nola bideratzen da? Oso garrantzitsua da.
- Proiektuak probatzeko alde zuzeneko espazioak. Espazioak, beharbada, parte-hartze eskolak dira?
- Nola finantzatzen dira proiektu pilotuak?
- Informazioa oso landua eta osoa da, foro irekiaren esparru honetan ekarpena egiteko modukoa.
- Puntu zehatzei dagokienez:

Nola sor daitezke proiektuak:

- Beste puntu bat gehitzea falta da: martxan edo bidean dauden proiektu edo egitasmoak prozesura irekitzea edo gehitzea. I-labean hartzea.

Nola heldu proiektuei:

- Deialdiari buruz: zerbitzu hau lehenestea eta lehendik dauden deialdiekin egokitzea.
- Agian, hackatonaren aukerak eta aukera autonomoa muturrekoegiak dira. Erdibideko puntu bat bilatu, beharbada?
- Sartzen diren proiektuak nork eta nola erabakitzen dituen zehaztu behar da.
- Postureoa saihestu, desilusia sortzen duelako.

Transferentziarekin lotutako zerbitzuetan, hau falta da:

- Bekak, laborategian integra daitezen.
- Irekita uztea, eragileek zerbitzuari orientazioa, transferentziarako laguntza eta prestakuntza eman diezazkioten. Esperimentazioari atea irekita uztea. Inpaktu kuantitatibo nahiz kualitatiboa ebaluatzeko sistema funtsezkoa da.
- “Praktikak”, hau da, parte-hartze prozesuetan lagunduko duen praktiketako jendea.
- Hau guztia herritarrei helaraztea; izan ere, “hau elkarreentzat txinera bezala izan daiteke”.
- Ebaluazioak jarraitua izan behar du. Prozesuak jarraitua izan behar du, berez ikaskuntza bat delako.
- Zergatik ez erreparatu Berritzeguneen adibideari?
- Kosta egiten da transferentzia bera nola gauzatzen den ikustea, urrats hori sustraian dagoelako (berdin gertatzen da esperientzioarekin).
- Galdera batzuk: zer egin esperientzia “jasotzen” duen pertsonak esperientzia bere egin dezan? Nola transmititu? Nola erakarri hartzailea?
- Transferentzia bermatuko duen tresna praktiko eta demokratiko bat. Mahaian luze eta zabal hausnartu da ea nola garatu behar den tresna hori, eragile sozial guztiek erabili ahal izan dezaten, proiektu honekiko konfiantza eta sinesgarritasuna sortzeko. Transferentzia ondo planteatzen ez bada, zaila izango da esperientzuetan lortzen dena erreala izatea eta errepikatu ahal izatea.
- Zerbitzu zehatzei dagokienez:

Hornitzaileen direktorioa:

- Baliteke akreditazio hau proiektuaren berri duten erakundeek soilik izatea eta beste batzuk kanpoan gelditzea. Arrisku bat da.

Prestakuntza espezializatuaren atalari dagokionez:

- Deskribapenaren azken lerroan, parte hartzen “hasteko” funtzioa aipatzen da. Herritarrek, jaiotzen direnetik, interesgarri eta motibagarri zaien eta zerbait ematen dien horretan parte hartzen dute, hau da, partaide izatearen sentimendua ematen dien guztian. Kontuz terminologiarekin.

Gobernantza-eredua

Bazkidetzak oinarri hauek ditu:

- Erantzunkidetasuna da garrantzitsua. Memoria eragilearen tipologiaren arabera ezartzea. Esaterako, kide diren erakundeetan pisu handiagoa izango luke konpromisoak; herritarrengan, berriz, beste alderdi batzuek...
- Aurretiko baldintzen eta konpromisoen arteko erdibideko punturen bat. Oreka beharko litzateke adituen eta prestakuntza handirik ez duten pertsona motibatuaren artean. Kontuan hartu behar da konpromiso maila, bazkidetzan eragina baitu.
- Oreka behar da aurretik egindakoaren eta konpromisoaren artean. Uste da beharrezkoa dela konpromisoak hartzea (argiak, zehatzak eta idatzizkoak), kontratu sozial bat. Herritarrak Open Eskolara joan beharko ziratekeen.
- Tarteko puntu bat. Ahalik eta irekiena, baina bilakaera izango duena. Agian, hasieran, aintzat hartu behar dira baldintza jakin batzuk, baina ez bereziki espezializatuak.
- Beharrezkoa da jakitea: 1/ Zertarako? Zer eragin izango du? Zer konpromiso hartuko dut? 2/ Aktibo mantentzeko gogoia eta konpromisoa. 3/ Konpromisoen funtsezko irizpideak. 4/ Erreferentziekin etorriko den jendea. 5/ Beste profil batzuk behar ditugu: adituak/ideiak.
- Ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa hartzea. Garrantzitsua da antolaturiko gizartearen eta pertsona partikularren artean bereiztea. I-laba oso urrun gelditzen da kaleko jendearengandik. Fase esperimentala gehiago kontrolatu behar da, konfiantzazko gune bat sortzeko. Hurrengo faseetan handituz joan daiteke.
- Esperientziak ematen duen balioa oso garrantzitsua da. Guztiei irekita egon behar du, hala talde eskarmentudunei nola konpromisoa bai baina eskarmenturik ez duten kideei. Sartzeko, bertan egon nahi izan behar da.
- Ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa hartzea. Presentzia parekidea behar da.

Erabakiak hartzeko guneek forma hau izango dute:

- Zuzendaritza-batzordearen eta lan-saioen arteko nahasketa. Erreferentzia gisa OGP eredua hartzea. Kide guztien artean erabakiko den gobernu-organoa. Nork osatuko du? Nork erabakiko du kideak nor izango diren? Noraino iritsiko dira haren erabakiak?
- Horizontal gisako formatua. Parte hartzen ikasi behar da. Zorroztasuna denboretan, helburuan... eraginkortasuna.
- Zuzendaritza-batzordea gai konplexu edo espezializatuagoak lantzeko, eta lan-saioak, berriz, gai arruntagoak lantzeko, operatiboak, erronkekin lotutakoak, eguneroko kontuak.
- Ezin da zuzendaritza-batzorde bat izan; tarteko zerbait izan behar du, baina lan-saioen formatutik hurbilago egongo dena.
- Modu batek ez du bestea baztertzen. OIAPek batzorde teknikoa dauka, eta beste gaiak irekian erabakitzen dira, bozketaz (maila berean).
- Gai espezifikoetarako buruzko lan-saioak.
- Tarteko zerbait, lan-saioetatik gertuago egongo dena. Behar-beharrezkoa da lidergo parekidea eta txandakakoa egotea.

Erabakiak hartzen hauek parte hartzen dute:

- Eragile mistoak.
- Tarteko puntu bat, baina eragile mistoetatik gertuago. Parte-hartze kuotak eta kalitatezko botoak egon beharko lirateke.
- Eragile mistoak. Ahalegina eskatzen du, batik bat gogorik gabe parte hartzen dutenentzat, baita haien denbora eta konpromiso pertsonala ere.
- Eragile mistoak. Eragileen aniztasuna eta gutxiengoak barne hartzea (adostasun zabalak); partaide izatearen sentimendua; ekintzarako konpromisoa; helburu partekatuak definitzea (gehienak eroso egongo diren helburuak).

Kontu-ematea eta gardentasuna bermatzeko...

- Irakurketa erraza.
- Aldez aurretik landu eta laburtutako informazioa, hizkera errazean idatzia.
- Bi aukeren batura. Bi mailak behar dira.
- Gaien araberakoa izango da. Laburpena ezin hobe da bisuala, erraz irakurtzekoa eta audio edo bideo erakoa bada eta hala irudiak nola lengoaia erabiltzen badira. Informazio zabalagoa oso ondo dago edonork kontsultatu ahal izan dezan.

